

elkar

UDAZKENA 2022
69. ZENBAKIA

www.elkar.eus



KATIXA AGIRRE

*Berriz zentauro, iraganalditik
etorkizun hurbilera doan eleberria*



LEONARDO PADURA

Personas decentes, su novela más detectivesca

FERMIN MUGURUZA. BLACK IS BELTZA II: AINHOA

Luzemetaia, soinu-banda eta komikia

IZEN PROPIOAK:

César Pérez Gellida · Aingeru Epaltza · Iban Zaldua · Joseba Sarrionandia · Iñaki Segurola ·
Jon Abril · Alai Zubimendi · Jesús Dueso · Isabel Mellén · Jon Arretxe · Irati Jimenez · Antton Olariaga





EGIN HARPIDETZA!

ETA JASO ELKAR DENDETAN
ERABILTZEKO 10€-KO BONOA!

**Irria aldizkaria ezagutu nahi duzu eta
oraindik ez zara harpide?**

Bete www.irrienlagunak.eus webgunean
topatuko duzun formularioa eta azken bi
aleak jasoko dituzu deskargatzeko moduan.

**URTEAN
49€**



HARPIDETZA EGITEKO AUKERAK:

Telefonoz: (0034) 943 304 332 zenbakira deituz
E-posta: harpidetza@irrienlagunak.eus helbidera
idatziz.

www.irrienlagunak.eus/harpidetza-n izena emanaz.

Baliatu gure eskaintza berezia eta jaso urtean iRRiAren 10 ale etxeen!!



ALAI ZUBIMENDI



Kultura sarean

Jarrai gaitzazu gure sare sozialetan



@elkar



elkar_taldea



elkartaldea



postdata.elkar.eus



elkar
liburu-dendak

ALGORTA (GETXO)
Telletxe 11
94491 66 16

ARRASATE
Erdikokale 14
943 79 78 29

BAIONA
Gouverneurs 9
5595935 14

BARAKALDO
Merindad de Uribe
944372276

BASAURI
Dr. Jose Garai 11
944261384

BERGARA
Ibargarai 7
943764050

BILBO
Licenciado Poza 14
944434708

ZAMUDIOKO
ataria Zazpikale
944161450

IPARRAGIRRE
26
944240228

DONOSTIA
Fermin Calbeton 21
943 42 00 80

BERGARA
6
943 42 63 50

GASTEIZ
San Prudencio 7
945 14 45 01

APRAIZTARRAK
1
Campus
945 14 16 70

HERNANI
Kale Nagusia 30
943 55 15 37

IRUN
Colon pasealeku 8
943 63 17 26

IRUÑEA
Comedias 14
948 22 41 67

Leire 9
948 17 55 38

TOLOSA
Arostegieta zg
943 67 35 33

UN MUNDO
de libros para niños

albatros


libros ingeniosos | mentes curiosas | librosalbatros.es

KATIXA AGIRRE



BERRIZ ZENTAURU

Katixa Agirre
ELKAR



Amek ez dute arrakastatsuaren ondoren, Bilbon finkatutako idazle gasteiztarra gure liburu-dendetara itzultzen da *Berriz zentauro* eleberriarekin. Etorkizun hurbil batean kokatuta, non errealitate birtualak bizitzaren dimentsio guztietan sartu eta goitik behera aldatu dituen, Paula Pagaldai izeneko protagonistaren pausoak jarraitzen ditu idazleak, Parisen. Hiru seme-alabaren ama, sexu birtualaren zale sutsua eta hezkuntzan espezializatutako enpresa teknologiko batean bazkide, Mary Wollstonecraft ilustrazioko filosofoaren inguruan ikertzen dabil Paula, eta bilaketa horren aitzakian etorkizuna iraganarekin batu eta gure orainari buruzko erradiografia bikaina aurkezten digu Agirrek.

Berriz zentauro zientzia fikzio espekulatiboaren alorrean koka genezake. Zure aurreko eleberriak jarraitu dituen irakurlearentzat sorpresa izango da genero aldaketa hau. Zerk bultzatu zaitu zure istorioa etorkizun hurbilean kokatzen?

Egia da gustatzen zaidala liburuz liburu gauza berriak esploratzea, eta *Berriz zentauro*n zientzia fikzioaren elementu batzuekin jolastu dut, Amek ez duten thrilleraren elementu zenbaitekin jolasten nuen bezala. Baino zientzia fikzio soft samarra atera zaidala esango nuke: etorkizun hurbil horretan eta ingurugiro teknologiko zehatz batean –errealitate birtualaren garapen eta zabaltzeak planteatzean duena–, benetan axola duena pertsona arteko harremanak dira.

**Este otoño,
déjate seducir
por las lecturas
del momento**

CROSS
BOOKS





AZALEKO ETA BARRUKO ARGAZKIAK: AINHOA RESANO

Distopia hutsa al da testuan agertzen den mundua ala utopia aztarnak ere baditu?

Ez dut uste ezer distopikorik dagoenik nobelan. Baikorra naiz izatez eta dena posible dela uste dut, baita onena ere; beraz, imajinatzan jarriz gero, zergatik ez imajinatu etorkizun argitsu bat? Azkenean, imajinatzan dugunak hein batean baldintzatzen du gertatzen zaiguna. Hala ere, eta errealsismoaren mesedetan, badaude gauza batzuk etorkizunean okerrago irudikatu ditudanak, batz er klima aldaketak eragindako katastrofee dago-kienez. Bestalde, zergatik ez imajinatu iraultza fiskal bat (aberatsak zergak ordaintzera behartuko dituena), minbizia sendatuko duen terapia mota berri bat edo errenta unibertsalar ezarpena?

Etorkizunean gertatzen den istorioa iraganetik datorren beste istorio batekin tartekatzen da: Mary Wollstonecraft, Mary Shelley-ren ama eta feministaren biografiarekin. Etorkizuna asmatzeko derrigorrezkoa da iraganera bueltatzea?

Uste dut liburuan suma daitekeena dela etorkizuna, oraina eta iragana ez daudela guk normalean uste du-gun bezain banatuta. Hori gure egunerokoan ere ikusi daiteke: gutxitan bizi gara orainean, etorkizunaz pentzeari denbora asko dedikatzen diogu, eta iraganean gertatu zen horri bueltak eta interpretazio berriak asmatzen ere bai. Hori maila pertsonalean, baina gizarte moduan ere, ezinbestekoa iruditzen zait iragana eza-gutzea etorkizuna imajinatzeko eta are sortzeko ere. Konexio hori presente izatea beharrezko da.

Nolakoa izan da dokumentazio procesua etorkizun hurbil hori sinesgarria suertatzeko?

Gaur egungoari begiratu diot batez ere: zer ari da haz-

ten gure inguruan, apena ohartzen bagara ere? Nondik ari da jotzen teknologia? Adi egotea da kontua, seinale guztia hor daude. Gero, kontu teknikoetarako, errealtitate birtualean adituak diren pertsonak topatu eta akosatu ditut sare sozialen laguntzaz, eta batzuek asko lagundu didate.

Unibertsitate irakaslea zara, eta eleberri honeitan ageria da pedagogiaren inguruko gogoeta sakona; alegia, nola (noraino) erabili beharko gen-nukeen teknologia ikasleen hezkuntzan. Ondorioaren bat atera duzu?

Ondoriorik ez, baina aspalditik dudan kezka da. Ikusten duzunean zure ikasleen joera dela, edozein zalentza dutela ere, Youtubeko tutorial batera jotzea, nola jarraitu dezakegu irakasten internet oraindik existitzen ez zenean bezala?

Errealitate nahastuaren kontzeptua askotan agertzen da liburuan: errealitatea eta birtualitatea ez direla eremu itxiak, baizik eta continuum baten ertzeko muturrak, eta gauza bera gertatzen da generoarekin. Zein esanahi eta au-kera berri hartzen dituzte identitate sexualek eremu digaletan?

Sexu eta genero identitateak erabat lotuta daude gorputzari. Haudunaldiko 20. astean ekografia bat egiten zaio umekiari, eta espezifikoki hankartea bilatzen zaio klasifikazio hori has dadin. Teknologiak gorputza atzean uzteko baimena ematen digunean –metaversoko avatar bihurtzen garenean–, ez al du horrek guztiz iraultzen sexu-genero sistema?

Tinder aplikazioaren eboluzio teknologikoa agertzen da eleberrian, eta tentsio ugari agertzen dira sexu birtualaren esanahiaren inguruan. Eremu digitalean soilik garatzen diren harremanak zer dira: giza harremanen eboluzio logikoa ala galbidea?

Gauza biak izan daitezke, eta izango dira. Teknologiak dagoeneko baldintzatzen du gure sexualitatea. Porno gehien kontsumitzen eta sexu gutxien praktikatzen duen belaunaldiak omen gara. Eleberrian esaten da sexua gehienbat “imajinazioan gertatzen den zerbait” dela, baina duda daukat norberarentzat besteak garrantzia galtzen duen heinean –pantaila bateko irudia delako, edo avatar bat– ez ote den guztia bihurtzen arreta nartzisista eta kontsumista hutsa.

AIXA DE LA CRUZ

Idazlea

ZAPALDUEN OLERKIAK

Diktadurak, mafiak, pobrezia:
hainbat komunitateren lekukotzak





ISABEL MELLÉN
Filósofa e historiadora del arte

Proposamena

UNA HISTORIA DE RESISTENCIA

La historia de las mujeres aún no ha sido del todo escrita. Cada día somos más las investigadoras que nos dedicamos a conocer nuestro pasado colectivo y a reescribir una historia crítica sin sesgos machistas, pero el trabajo que tenemos por delante es todavía ingente. Afortunadamente, en la actualidad podemos encontrar en las librerías biografías de pioneras, de reinas poderosas o de grandes figuras femeninas que nos hablan de las vivencias de las mujeres del pasado. Pero pocos estudios van a la raíz, al modo como el patriarcado ha modelado las mentes y cuerpos de las mujeres para someterlas

a su control. En ese sentido, el libro *Ni casadas ni sepultadas. Las viudas: una historia de resistencia femenina* de la doctora en Historia Amaia Nausia Pimoulier va directamente al germen de muchos de nuestros problemas de ayer y de hoy. Las viudas, un inesperado sujeto histórico, se convierten en la clave para comprender los mecanismos adoctrinadores del incipiente patriarcado de la Edad Moderna. En tanto que mujeres solas y no sometidas a la tutela de un varón, las viudas, que encontraban la emancipación tras la muerte de sus esposos, fueron un quebradero de cabeza para un sistema que consideraba que

las mujeres no tenían la madurez intelectual para gobernar sus propias vidas. Sobre ellas se volcó todo el aparato represor y los sutiles mecanismos de control que todavía siguen operando en gran medida en la vida de las mujeres del siglo XXI.

La historia de las viudas es una historia de supervivencia en un mundo hostil, de lucha contra la pobreza y los prejuicios, de descubrimiento de una libertad hasta entonces negada y, en definitiva, de resistencia. Amaia Nausia Pimoulier recupera de forma magistral la voz de las más olvidadas, cuyos ecos resuenan con fuerza en nuestros días.



NI CASADAS NI SEPULTADAS
Amaia Nausia Pimoulier
TXALAPARTA

Profilo JAVIER ABASOLO

RARA AVIS



JON ARRETXE
Idazlea



© EREIN

Idazleon mundua toxikoa da. Dena da ni eta ni eta ni, dena da neure liburua, zergatik ez dago liburu-dendetan agerian, zergatik ez zaizkio kritikak egiten hedabideetan, zergatik ez naute sarietarako kontuan hartzan, zergatik saltzen dut hain gutxi idazle askoz txarragoek askoz gehiago saltzen badute...

Batzuek besteeik baino hobeto disimulatzen dute pentsaera hau, baina itxurakeriaren azpian inbidiaz, ezinikusitza eta frustrazioz betetako mundua dago.

Nik idazle bat baino ez dut ezagutu, bat, alboko arrakastagatik bene-benetan pozten zena, itzalean geratzeak zapuzten ez zuena, kolegi beti laguntzeko prest zegoena: Javier Abasolo. Izaera horren isla, bere blogean egiten ari zen lan miresgarria: Euskal Herrian euskaraz, gaztelaniaz nahiz frantsesetan idatzitako nobela beltz guztien zerrenda, eta haiei buruzko iruzkinak. *Txapela Noir. El diccionario del género criminal vasco* ipini zion izena lan horri. Izan ere, horrela bataiatu zuten euskal nobela beltza Xixongo Aste Beltzean.

Eskuzabala berekoien munduan, apala handinahien artean, halakoa zen Abasolo. Eta gainera, ondo idazten zuen. Gure espezialistarik handiena zen nobela beltzean, genero honen gakoak primeran ulertu eta interpretatzen zituen eta bere lan guztietan maila ona edo oso ona ematen zuen, beste askoren gorabeherarik gabe.

Nobela beltzaren munduan estatu osoan estimatua eta maitatua zen idazle bilbostarrak ohar hau idatziz zuen bere blogean hil aurretxi:

Hoy quiero despedirme de todos cuantos me habéis acompañado en mi trayectoria como persona. Agradeceros todo lo que me habéis aportado en este camino, y de-

ciros lo agradecido que estoy a cada uno de vosotros.

Eskerrik asko.

Javier Abasolo

Geuk esan behar dizugu zuri "eskerrik asko", Javi. Hutsune handia utzi diguzu, zure bihotza bezain handia. Ez zaitugu ahaztuko.



IRATI JIMÉNEZ IDAZLEA

BARREN-BARRENEAN


KANONAZ, BERRIRO

Abadeek idatzitako literatura *abadeen literatura* delako normal-normal arbuiatzen dugula idatzi nuen aldizkari honen aurreko alean, eta literaturak hori baino tratu hobea merezi duela. Beste arte batzuei ematen dieguaren antzekoa, esate baterako. Ez baititugu baztertzen Firenzenko II Duomo edo Vaticanoko Kapera Sixtinoa arte kristaua direlako. Eta berdin edo antzera esan genezake kanonikoak deitu ohi ditugun idazleak feministismoarekin eta deskolonizazioarekin zerikusia duten arrazoiengatik bazterzegatik.

Aspaldi honetan birritan gertatu zaidalako diot. Bi aldiz egon naiz literaturaz hitz egiten eta topatu dut norbait *kanonikoak* deitzen ditugun idazleen literaturari muzin egiten, hain zuzen ere, idazle horiek *kanonikoak direlako*. Bi kasuetan izan da horretarako argudio nagusia beste batzuk direla orain irakurri beharrekoak, eta ezin esan hori gezurra denik. Begirada zabaldu behar dugu, gizonezko zuri mendebaldarren literatura eta literatura unibertsala bi gauza desberdin direlako, eta geure buruan baino existitzen ez den parnaso imajinarioan badagoelako lekuak bikaina den literatura guztiarentzako. Feminismoak ez digu exijitzen gutxiago jakitea edo ezagutzea, are gutxiago eskatzen digu gutxiago *irakurtzea*. Alderantziz. "Gizon zuriak akats handi bat egin zuen nirekin", dio Malcolm Xek bere autobiografian (Capitán Swing, 2015), "bere liburuak irakurtzen utzi zidan", eta horregatik besterik ez balitz irakurri beharko genuke feministika guztiok ahal bezain beste eta denetarik.

"Gaztetan gutako askok klasikoak gaindituta zeuden morroi batzuk zirela uste genuen, auto modelo za-harkituen antzera", idatzi zuen aspaldi, Flauberti buruzko artikulu batean, Mikel Hernandez Abaituak, gurean literatura egiten irakasteko idatzi diren liburu bakanetako baten egileak (*Narrazio tailerra*, Erein, 2011). Nondik datorren ideia delirante hori ez dakit, baina badu zerikusirik nire usteaz gizonen arteko lehia patriarkalarekin eta, ez bakarrik gure, baina baita gure literatura ere toxifikatzen duen *belaundismo* madarrikaturekin. Literaturaren ezagutzaren kontra doan joera arriskutsu honek urrundu egiten ditu garai bakotzeko irakurleak iraganeko liburu bikainetatik eta kaltetu egiten du sormena, ezin delako ondo idatzi ondo irakurri gabe. Eta iraganean ondo idatzi izan da. Iraganean, lagunok, *oso ondo* idatzi izan da. Liburu berri bakar bat idatziko ez balitz, guk guztiok pasa ahalko genituzke hil arteko geratzen zaizkigun urte guztiak irakurtzen behin ere aspertu gabe.

Literatura feministago eta deskolonizatuago bat nahi dugula esaten badugu ez dugu esaten gizonezkoen literatura unibertsala arbuiatzen behar dugunik. Eraiki den moduaz hausnartu behar dugu, kanpoan geratu ez daitezen hainbat izen. Feminismoak ez du esaten Flau-




ILLUSTRAZIOA: ANTONI OLARIAGA

bertek ez duela balio gizona delako, Flauberten mailara iristeko emakumeok ditugun arazoak seinalatzen ditu, Flauberten mailara egonik bere izena ez duen emakumerik ote dagoen galdetzen digu, Flauberten literaturaren generoaz hausnartzera animatzen gaitu eta Flaubert irakurtzen, frantsesetan idatzi zuen gizon zuria zela ahaztu gabe. Ez Flaubert ahaltea, gizona zelako, edo zuria, edo frantsesa. Gizonen liburuetan dagoen literatura bikainari uko egitea ez da feministikoak exijitzen diguna, bes-teak beste, feministoarentzat oso problematikoa dela-ko gizonen eta emakumeen arteko literaturaren arteko banaketa biologista eta binarioa onartzea.

Flaubertek daukan lekuak merezi duela jakiteko ez dago *Madame Bovary* (Ibaizabal, 1993) irakurtzea baino metodo zorrotzagorik. Hor agertuko zaio edozein garai eta

generodun irakurleari emakumeon gizarteratze patriarkalaren erretiratu apasionantea eta inoiz idatzi den nobela onenetako bat. Literatura bikaina egin baitzuen Flaubertek. Eta Faulkenerrek. Eta Steinbeckek. Eta Lorck. Eta gure argiak itzaltzen direnean bizirik jarraituko duten arbaso iraungiezinak. Ez dut nik esaten. Zeuok konprobatu dezakeuze. Zeuon begiekin.

Hortik aurrera, literatura feministaz, emakumezkoen literaturaz, kanon unibertsalaz eta literaturaz gehiago jakin nahi baduzue, ez dituzue topatuko Joana Russen *Cómo acabar con la escritura de las mujeres* (Dos Bigotes, 2018) eta Ursula K. Le Guin-en *Contar es escuchar* (Círculo de Tiza, 2018) baino askoz lan egokiagorik eta ez da idatzi Virginia Woolf-en *Gela bat, norberarenarena* (Consonni, 2013) baino liburu boteretsuagorik.



ARGAZKIA: JOSE GOITIA

JOSEBA SARRIÓNANDIA

Munduari bira eman zion ontzia argitaratu du Joseba Sarriónandia. Pamielaren eskutik. Elkarrizketa formako liburuak Magallaes eta Elkanoren mundu-biraren eta egundaino dirauten ondorioen inguruko hainbat galdera piztu asmo du. Irakurleen gozagarri, Ares margolari kubatarraren irudi ederrek janzten dute testua.

Liburuaren egitura ez da ohikoena, elkarrizketa forman idatzia da.

Erdi kontakizuna, erdi interpelazioa da egitura aldetik. Amama historiako pasare batzuk kontatzen saiatzen da; eta neskatalak, berriz, ikuspegi naif batetik, jakinaren gainezkotz eman ohi diren hainbat gai planteatzen ditu. Edozertaz hitz egiteko aukera zabaltzen du umearren jakin-minak; Jainkoa nor den, edo luraren jabetza nondik datorren, edo gaur eguneko enterik errealistena de-na, diru, zer den.

Testuak soilik ez, irudiek ere garrantzia handia dute.

Hasiera batean, XVI mendeko irudiak egiten saiatzen zuen Ares; eta orduko norbaiten moduan ahalegindu nintzen ni idazten. Gero, pentsatu genuen halako gai handikeriatura baten gainean itsusia dela modu primarioan idaztea. Eta beste egitura konplexuago hau aukeratu genuen. Errelato itxura zuzenaren ordez, gaur eguneko kontalari ustez jakitun baten kontakizuna eta ume ez-jakin-umoretsuaren interpelazioekin.

Sasoi differenteko gauzak nahasten dira marrazkietan.

Gaur egun bidaia hari buruz hitz egiten bada, harrezkero gertatu den globalizazioagatik da. Bost mendeko historia daukagu gainean gure bizimoduan, eta horixe islatzen da marrazkietan, Lapurren Irlako naoak Guam irlako base militarreko korazatu estatubatuaren alboan agertzen dira.

Marrazkiekin jarraituz, bada hutsune nabarmenik. Zer dela eta ez duzue Elkano irudikatu?

Elkano justiziagandik ihesean zebilelako batu zen espedizioan. Ez da pertsonaia epiko konkistatzailea, Magallaes



ILUSTRAZIOAK: ARES

bezialakoa. Elkanok unean uneko baldintzen arabera jokatu zuen; bazterreko pertsonaia izan zen marinel gehienak bezala eta Antonio Piagafettak aipatu ere ez zuen egin bere kronikan. Espedizioaren kapitain bihurtu zen, halabeharrez, Enriquillok eta Humabonek prestatutako tranpan buruzagi gehienak hil zitzuelako. Orduan, marinel arruntak geratu ziren bizirik eta, goitik beherako agindurik gabe, batzarrak egin behar izan zitzuten. Elkano, enbarkatuetako beste bat, hutsik utzil dugu; irakurleak liburua irakurri ahala bere hausnarketekin bete dezan.



**MUNDUARI BIRA
EMAN ZION ONTZIA**
Joseba Sarriónandia
PAMIELA

Bidaia bera naufragioaren metafora gisa kon-preni litekeela aipatu izan duzu.

Munduaren bidaia hori oso oker kontatzen da; Magallaesen proiektutzat aurkezten da, apena aipatzen da Enriquillo, abentura heroikoaren zentzua ematen zaio... Mundu-bira arrakastatsuaren ideia nahiko absurdoa da, kontuan hartuz gero, 237 lagun abiatu zirela bost itsasontzitan, eta 21 bakarrik itzuli zirela barku bakarrean. Irabazi ekonomikoak izan zitzuten, hori bai, erregeak eta bankari alemaniarrek. Baino zenbat jende hil zen, zenbat sarraski egin zitzuten bidean: naufragio larritzat kalifica daitekeela. Uste dut konpara daitekeela, metafora moduan, kapitalismoaren historiarekin, hau ere progresu arrakastatsu moduan saltzen zaigulako. Onura ekonomikoa ekarri die kapitalismoak edota kolonialismoak gutxiengo batzuei, mundu gehiena hondatu duten artean.

“Onura ekonomikoa ekarri dizkie kolonialismoak gutxiengo batzuei, mundu gehiena hondatu duten artean”

Hamarkada luzez, itsasora jaurti ohi den kristal-lezko botila nola, bidali izan dizkigu zure liburuak. Literaturarekin duzun harremana aldatu al zaizu Euskal Herrira itzuli zarenetik?

Urte horonetan bai, espazio publiko-mediatico honetara jausi naiz, eta niretzat ez da komodoa. Gela bazter batetan idazten nengoen ohitura, nobela edo dena dela-ko argitaratzeko bidali eta kito, amaitzen nuen lana. Orain konturatu naiz nobela argitaratu ondoren hasten dela idazlearen benetako nobela.

LEONARDO PADURA


Personas decentes (Tusquets, 2022).

Así se llama la nueva novela de Leonardo Padura, que también es la nueva de Mario Conde, un detective que le ha acompañado a lo largo de diez libros y más de treinta años. Es una historia de misterio, sí, de detectives, asesinatos y sospechosos. Pero, sobre todo, es una narración sobre la condición humana, sobre la libertad, sobre las contradicciones que provoca la vida y también sobre la historia de Cuba, un inevitable de su literatura.

Ha convivido con el detective Mario Conde varias décadas. ¿Cómo lo lleva? y ¿cómo se llevan?

Nuestra convivencia, como todas las relaciones largas, ha sido complicada pero satisfactoria. Conde a veces hace lo que le da la gana, se maltrata como individuo, es políticamente incorrecto en ocasiones, pero yo le permito todo eso a cambio de que me ayude a reflejar lo que va siendo la vida cubana en todos estos años y, sobre todo, lo que ha sido la historia lamentable de mi generación, la que él llama la "generación escondida". A estas alturas del juego nuestra cercanía es muy cómplice. Uso a Conde para decir cosas que necesito expresar y Conde me utiliza a mí para reflexionar sobre temas tan importantes como la Historia, la utopía extraviada o el propio sentido de la vida cuando uno envejece... La verdad es que nos queremos mucho.

FOTOGRAFÍA: IVÁN GIMÉNEZ



PERSONAS DECENTES
Leonardo Padura
TUSQUETS

históricas, y quise ponerle un poco más de sangre y violencia a una historia que ya me venía envuelta en momentos y procesos violentos. En la mayoría de mis novelas me basta con un muerto para armar una trama más o menos policial. Esta vez apreté las tuercas y hay varios muertos, en el presente, en el pasado, mutilaciones y hasta un duelo a pistola como los del oeste y un ajusticiamiento a sangre fría... Creo que si tenía alguna deuda con el género, esta vez di hasta un "generosa" propina.

¿Ha sentido miedo alguna vez mientras escribía?

Por supuesto. Y el escritor que no lo sienta, pues es un escribidor, no un artista. Le tengo terror a los adjetivos, por ejemplo. Tengo pavor a no ser capaz de expresar lo que pretendo. A que las estructuras no encajen. A que los personajes no resulten lo más cercano posible a los seres vivos. A no poder abarcar la densidad de un proceso o momento histórico... A la censura no le tengo miedo, o no tanto. Sobre todo porque no depende de mí. Ese miedo, cuando me asalta, lo supero diciendo lo que necesito decir y me atingo a las consecuencias.

TERESA SALA
Periodista

La entrevista completa:
<https://bit.ly/leonardopadura1>



salamandra

Una conmovedora historia
de amor con la guerra
y el colonialismo
como telón de fondo.

ABDULRAZAK GURNAH
PREMIO NOBEL
DE LITERATURA 2021




BAR GLORIA

Egunaren zurrubiloa noiz apalduko daude Ana, Rakel eta Migel liburuko protagonistak, Gloria taberna ixteko azken garbiketa lanak egiten, gero patxaran gozotan elkarri eusten dien sarea ehuntzen segitzeko. Idi buru bat dute zelatan, adarrak zorrotz eta muturra lehor –gorputz gaixo baten itzala ilunpean–, eta distantzia gutxira dago Paradise, desira ukatuen dantzaleku, gela erreserbatu eta moketazko hormekin; eta baita hiria ere, lagunarte berri, arrotz denaren aire urduri eta mo-

dernitatearen lokalazioekin. Ihes egiteko modu asko daude. Lopetegitarrek herri industrial batera aldatu dira haien baserri giroko auzotik –Bizenta, Patxi, seme-alabak–, zer aurkituko duten oso ondo ez dakitela, eta Gloria taberna hartu dute han, errekondoan, etxe grisak, pertsiana berdeak eta leho estuak inguruan. Aurkituko ote dituzte beste bizitza batzuk saiatzeko bideak fabriketakoa ke eta burrunba etengabeen artean. Mundu bat kabitzen da Gloriako azuleju gorri eta gainazal koipetsuen artean –txi-


kiteroak, kamioiliariak, are beste mundu bat iragartzen duen trabestiren bat noizbehinka– eta denboran ate ezberdinatik sartuko da irakurlea hara kontakizun honetan. Jendea da haren zimendu, eta konplizitate uneek, isildutako bortxa-markek, lan ordu koparituek zein elkarritzeta tarteka mutuek epeldu bezala erreko dituzte habe horiek, beste batzuk eraikitzezk, akaso. Iragan hurbil baten hitzezko filmatze bat dakan Nerea Ibarzabal Salegiren estreinako nobelak.

SUSA



BAR GLORIA

Nerea Ibarzabal Salegi
SUSA



PETARE
MIREN EGIGURENEN PUSKAK
Leire Ibarguren
TXALAPARTA

TXALAPARTA

Miren Egiguren bidaniarrak 46 urte eman ditu Venezuelan, lehenik misiolari eta gero kooperante. Zehazki, gehienbat, Caracasko Petare etxolez osatutiko auzo aldapatsuan. Miren Odriozolaren bitartez jakin zuen haren berri Leire Ibargurenak, eta, Euskal Herrira itzulia zela aprobetxatz, bisita egin zioten biek. Horrela, kafez kafe eta solasaldiz solasaldi, Miren Egigurenen bizitza josi du Leirek, bidaniarra argitaratutako dokumentuak eta garaian garaiko kronikak lagun. Berrogei urte baino gehiago eman ditu Miren Egigurenek Caracasko auzorik pobreenean

komunitatean eta komunitate horrekin alboz albo lanean. Auzolanean eraiki zituzten haurtzaindegia eta ikastetxeak, ur sistema, familiantzako tailerrak, elikagaien kooperatiba, okindegia... Lan horren guztia oinarrian, elkarlanean antolatzearen garrantzia gailentzen da arlo guztietan, kooperazioari saretzearen ardatzetik begiratuta. Miren berehala ohartu baitzen egurrezko etxolek osatzen zituzten barrioetako bizimodu hobetzeko modu bakarra bertakoekin antolatu eta elkarlanean aritzea zela. *Gu* zabal bat eraikitza, eta

taldeak egindako lanaren emaitza izatea loren oro. Eta *gu* hori elikatzeko ezinbestekoak zen esku artean proiektua izatea, baita elkarri entzun eta elkar ezagutzeko espazioak sortzea ere. Horrela bihurtu zen Miren komunitateko kide kementsu eta maitatu, eta horrela iristen zai-gu haren ahotsaren bidez komunitate oso baten lau hamarkadaren lekukotza bizia. Leire Ibargurenak berak Miren Odriozolari buruz idatzitako liburuarekin egin bezala, Emagin elkartarekin batera argitaratu du Txalapartak biografia hunkigarri hau.

PETARE: EPIKA BERRIAK

MIKEL SANTIAGO
EL MAESTRO DEL THRILLER
VASCO VUELVE CON
ENTRE LOS MUERTOS,
EL MAGISTRAL CIERRE DE
LA TRILOGÍA DE ILLUMBE.



150 000
LECTORES
LO ESTÁN
ESPERANDO

Disponible
en ebook





CÉSAR PÉREZ GELLIDA

FOTOGRAFÍA: CARLOS DE FRANCISCO

“El sadismo como parafilia existe y llevado al extremo puede convertir a las personas en monstruos”

César Pérez Gellida (Valladolid, 1974) es todo un experto en el género negro. Sus novelas, estructuradas en capítulos cortos y marcadas por inesperados giros de guion, mantienen al lector atrapado en un ritmo trepidante que le lleva en volandas hasta el desenlace. Desde que en 2013 saliera a la luz *Memento Mori*, no ha parado de publicar, a razón de dos títulos por año, todos ellos en la editorial Suma de Letras. *Nos crecen los enanos* es su última entrega, una historia brutal en la que la policía Sara Robles y el guardia civil vizcaíno Bittor Balenziaga persiguen a un sádico asesino carente de escrúpulos.

En esta última novela, vuelve a presentar a un asesino repugnante, sin un ápice de humanidad. ¿Por qué elige estos personajes? ¿Cree que existen personas así en la vida real?

El sadismo como parafilia existe, por supuesto, y llevado al extremo en el campo de la experimentación puede convertir a las personas en monstruos.

La trama puramente policial transcurre paralela a los problemas amorosos de los investigadores. Y, en el centro, la figura de Sara Robles, que ya ha protagonizado otras novelas suyas.

Sara es un personaje que lleva viviendo en mi cabeza mucho tiempo aunque no fue hasta La suerte del enano cuando tuvo su primer papel protagonista y me demostró todo lo que podía dar de sí. Es, sin duda, uno de esos personajes de los que más orgulloso puedo sentirme como autor.

Entre los temas que sobrevuelan la trama está el de los abusos sexuales a menores. ¿Cree que sus consecuencias se arrastran toda la vida?

Cada caso es un mundo y cada una de las víctimas lo vive de forma diferente pero no hay ningún menor que salga indemne de una situación tan terrible.

Hay también una ‘pulla’ a los medios de comunicación, al amarillismo de las televisiones y a las



NOS CRECEN LOS ENANOS
César Pérez Gellida
SUMA DE LETRAS

condiciones de trabajo de los periodistas.

La novela negra debe reflejar la realidad del momento, y esa es parte de una triste realidad que nos toca vivir.

Los diálogos son parte fundamental de su prosa y en ellos muchas veces se cuela el humor o la ironía. ¿Cuesta mucho trabajarlos para que sean creíbles?

Es parte del oficio y por tanto: es cuestión de veces.

Usted es licenciado en Geografía e Historia ¿Por qué ha elegido el género negro para desarrollar su carrera literaria?

Es el género que mejor se adapta al tipo de historias que me gusta crear. Me gusta poder mantener en vilo al lector y, por supuesto, engañarlo.

A su juicio, ¿qué debe tener una buena novela negra y qué le sobra?

Una buena novela negra debe contar con muy buenos personajes, una estructura sólida y coherente y un proceso de investigación en el que pueda participar el lector. Le sobra todo lo que no suma en la trama.

¿Cuáles son sus autores de referencia?

Pérez-Reverte fue el autor que me descubrió la adicción a la lectura y las novelas de Juan Gómez-Jurado siempre han sido fuente de inspiración. Admiro mucho a Dolores Redondo, Víctor del Árbol, Nesbo y muchos más.

KAROLINA ALMAGIA
Periodista

¿QUÉ SUCEDA CUANDO TE HACEN SER LO QUE NO QUIERES SER?



El nuevo caso de la serie Bevilacqua y Chamorro MÁS DE 2.000.000 DE LECTORES

DESTINO

IBAN ZALDUA

Topikoan erortzeko tentazioa izanez gero, betiko Iban Zalduaren beste ipuin-bilduma baten aurrean gaudela esango luke norbaitek. Horrez gain, ordea, *Ipuina engainua da liburu berriko 17 ipuinotan nabari daiteke koska bat estutzeko grina, ikuspuntuak tenkatzeako, tramak korapilatzeko...*

Esperimentatzen jarraitzeko joeraren ondorio dira ipuinok?

Garapen luzeagoak behar nituen oraingoan: nire *konfort zonatik* kanpokoak. Esango nuke, aurreko liburuekin alderatuta, urrats bat eman dudala, ez dakit aurrera edo lerro paralelo batera, baina bai beste nonbaitera.

Mikroipuinik ez eta ipuinak ere, oro har, ohi baino luzexkoagoak dira. Nahita egindako hautua da? Erabaki kontientea izan da. Baneuzkan beste batzuk laburragoak, normalean eroso mugitzen naizen 3-8 orrialde bitarte horretakoak, baina alde batera uztea erabaki nuen, ipuin bakoitzean lortu nahi nuen *giroa* ez kaltetzeearren.

Engainua, adulterioa, iruzurra, ametsa... Ipuinetan jorratzen diren hitz gakoetako batzuk dira, baita ipuingintza definitzeko baliatzen dituzunak ere.

Bai, gakoa delako irakurlea traizionatzea, hots, harritzea eta, bide horretatik, iluraztea. Ez zait asko interesatzen ilurarak gabeko ipuingintza.

Eskola segregazioa, GKS, sare sozialak, arma industria... Puri-purian dauden gaiak ipuinen aurre eta atze-oihalean.

Ipuinak badu berehalakotasun bat, orainaldiari pultsua hartzeko egoki egiten duena. Baino, gainera, aipatzentzutuzunen kasuan, saiatu naiz gaiok beste ikuspegi batetik argiztatzen, jira bat eransten irakurlearentzako erakargarri bihurtzeko...

Hainbat amaierak ipuina berreraikitzen bultzatzen dute irakurlea.

Ipuin luzeetan ezin da hainbeste jokatu sorpresazko amaiera klasikoarekin, beste zerbaits eskatzen dute. Erron-



IPUINA ENGAINUA DA
Iban Zaldua
ELKAR

ka, hor, berreraikuntza horren bidez irakurlearen iluminazio motaren bat lortzea litzateke...

Kontrazalak, musika diskoak, zutabeak, hitzaldiak... Dena da "ipuigarria" zuretzat?

Dena, eta beti. Ipuina genero literario gorena da, ondo burutzen denean ekonomia, ezustea eta sakontasuna hobekien korapilatzen dituena. Eta probatu duenak ondo daki hori, nire irakurle klubeko urteetako esperientziak erakutsi didan bezala.

MIKEL AYERBE
Kritikaria

AINGERU EPALTZA

Erretzaile damutuen konpainia, egungo Iruñean giroturiko eleberri beltz eta aldi berean umoretsua kaleratu du Aingeru Epaltzak, Edu Saragueta kazetari desastrea, egiasko antiheroia berreskuratzen duena.



ERRETZAILE DAMUTUEN KONPAINIA
Aingeru Epaltza
ELKAR

Erregistro ugari uztartu dituzu testuan: nobela beltza, komedia urbanoa, erretratu soziologikoa...

Mazedonia polita antolatu dut, eta ez dakit zein osagai nagusitzen den. Joko politikoari eta soziolinguistikari ere ez diet ihes egin. Nahas-mahas horretan, Edu deskalabru deskalabru doa, bere inguruan saretu den bilbean katramilatuta.

XABIER MENDIGUREN
Editorea

Urteak nobela bat idatzi gabe...

Duela bederatzi urte plazaratu nuen *Gure Jerusalem galdua*, trilogia historiko baten azken partea, eta geroztik narrazio liburu bat baizik ez dut atera, *Mendi-joak*. Bistan denez, mantsoago eta neketsuago ibiltzen naiz orain. Beharbada, besterik gabe, alfertu egin naiz.

Oraingoan, historiako zirrkituak utzita, egungo gizartera itzuli zara, Rock'n'Roll nobela mitikoko protagonista berrartz...

Aspaldi nuen Edu Saragueta kazetari desastrea berriz ere dantzantxeko asmoa. Hogeitze urte zaharragoa ageri da oraingoan, baina lehengo lepotik du burua: trakts eta zorte txarreko lan eta larru kontuetan, eta bilatu gabe saltsa gaitzetaoan sartzeko abileziaz ederki horniturik. Geografia ere ez da aldatu, Iruñean gertatzen da guztia, modu esplizituan oraingoan, izen-abizen eta guzti. Bestalde, lehen pertsonatik hirugarrenera jauzi egin badut ere, tonu ironiko, aldizka umoretsu eta mikatz bera erabili dut.

Hala ere, denbora honetan asko aldatu da Edu Saragueta, baita nafar jendartea ere.

Eduk lagunarte berria du, osasunaz kezkatuagoa. Ibil-tzera ateratzen da, tabakoa utzi du, drogak ere bai, edan eta jan neurri zegitera sariatzen da, gimnasio bateko bezero

bilakatu da... Beste kontu bat da horrek guztiak zenbateraino laguntzen dion. Testuinguruari dagokionez, Nafarroa zuria Nafarroa koloreanitzak ordezkatu du. Nobelan, Eduk emigrazioaren errealtitatearekin topo egin du langabeziak Arrosadia auzora egotzi baitu. Han "nafar-nafar" bakarra da bere etxe bloke guztian.


GARBIÑE LARREA

Santiago egunez Zarauzko batzokian elkartu gara, olgetan-benetan, ezin bestela, Garbiñe Larrearekin (Urnieta, 1976), Iñaki Segurolaren (1962-2022) Ganorexia (Alberdania, 2022) liburuaz aritzeko. Meteorologoek euria iragarri arren eguzkia agertu da laino artean. Mañukorta hil dela jakin dugu arratsaldean.

Idazten zuenaren gordetzaile izatetik (ez ireki, ez irakurri) editore lanak egitera pasa zara.
 Hiletaren egunean esan nion Jorgeri [Giménez Bech, Alberdaniako editorea] lan bat geneukala egiteko. Ireak eta irakurtzeko indarra edukitzea ere salto bat izan zen, jakin gabe testu hori zer zen, ideiarik ez neukan zer idazten ari zen. Beste Koiteritzia (2021) bat zen, edo ipuinak ote ziren. Gauza oso ezberdinak egiteko gogoa zeukan. Gure arteko harremana hasi eta handik gutxira Arrazoi ez dago edukitzerik (Alberdania, 2012) ateratzen, eta orduan hasi zitzaidan niri bidaltzen. Ez nuen ulertzen, editorearen eta bien arteko kontua zela uste nuen, are gehiago ezin banuen irakurri eta tartean sartu. Garbi neukan prozedura hori ahal zen neurrian errespetatu behar zela, espero nuena zen Jorgek testua jasotzen zuenean bera arduratuko zela. Hasierako ideia izan zen oin-oharrak behintzat beharko zituela, Iñakik aipatzen dituen argibideak emateko; hitzaurrea berak idatzita dauka, izenburuak ematen dio bide horretarako, eta Jorgek esan zidan horrelakoan epilogoa bat egitea ondo datorrela, bere obraren bukaera baita. Agur esateko ariketa bat ere bada, aldi berean. Horretarako beharra ikusi genuen.



ARGAZKIA: JOSUÑE BERNEDO SEGUROLA



GANOREXIA
Iñaki Segurola
ALBERDANIA

kirako aleetan sailkatuta. Txikiiena, azkena jarri zuena, niretzat, jeniala da: "Nere liburuak ere hitzaurreak dira".

Katolizismoak utzitako hutsune horretan transzendentziaren, bakearen eta lasaitasunaren bilaketa dago.

Osasun mentalaz ari baldin bagara, bakea eta lasaitasuna dira galtzen diren lehenak. Are gehiago baldin badaukazu insomnio bat menderagaitza dena. Eta gero bera bere sakoneta beltzera iristen zenean, iluntasun maximora eramatzen zuenean prozesu horrek. Berak bizi nahi zuen AAG, argi, arin eta gozo, eta hori ikusten dut liburuan. Argi, arin eta gozo: argi buruz, arin motxilaz, gozo jendartean. Psikoanalisia egin zuen motxila arintzeko, eta sekulako ahokadak esan, polemika handietan sartu, lagunak galdu arren gozotasun hori bilatzen saiatzen zen. Bizitzeko sekulako planteamendua iruditzen zait. Aldi berean ematen du lorrezina dela, baina zure buruari opa behar diozu hori, eta liburuan ikusten da hori. Guk ere pentsatu behar dugu argi arin eta gozo bizitza, opa behar diogu gure buruari.

“ Egurra banatzen ari denean bere buruari ematen dio lehenengo”

Zer topatu duzu liburuan?

Bereak diren gai asko ikusten dira *Ganorexian*: hizkuntzarena, etimologia, Euskal Herria, eliza... Badauka behar handi bat egurra emateko, bere kritikotasun garrastu hori. Gai horietako asko dira motz gertatzen ziizaizkion formatuetan, Euskadi Irratiko sermoietan, adibidez, denboragatik garatu ezin zituenak. *Hankak Lurrin* irratsaioa ere berarentzat *mina* bat izan da. Nik ikusten diot berak zeukan ibilbide horretan atzera begiratzeko beharra ere, lehen idatzi izan dituenen inguruko hausnarketa egiten du, hor baditu damuak, autokritika egiten du, egurra banatzen ari denean bere buruari ematen dio lehenengo. Liburu honetan ere ikusten zaio pentsamendu ezaikari hori, *Sed quia suan garatu zituen hainbat gai eta han kokatu ez zituenak estilo libreagoan lantzen ditu, kapituluka beharrean tamaina handitik txi-*

PERU IPARRAGIRRE
Kazetaria

Elkarritzeta osorik:
<https://bit.ly/garbiñelarrea>



Mikelek ardiak kontatzen ditu lokartzeko.
Bat, Bi... Baina, eta Lau ardiak ez badu jauzi egin nahi?

Artaldea · Margarita del Mazo eta Guridi · 978-84-19253-29-3




nubeOCCHO
www.nubeoccho.com

EL ALMUERZO DEL FORENSE

Amok Ediciones nació con la vocación de compartir historias con un sabor diferente. Publica autores de éxito reconocido en Asia que aún no han sido traducidos con éxito al castellano. Uno de ellos es Colin Cotterill y su primer libro de la serie de Siri Paiboun, *El almuerzo del forense*. Siri Paiboun es un forense septuagenario y excéntrico detective, con una curiosidad sin límites, un ácido sentido del humor y buenos contactos en el "mas allá", cuyas aventuras transcurren en el Laos comunista de los años 70. Cuando el cuerpo de la esposa de un prominente político llega a su morgue, Siri tiene razones para sospechar que la

mujer ha sido asesinada. Para llegar al fondo del asunto, Siri y su equipo tendrán que desvelar secretos gubernamentales, enfrentarse a espías extranjeros, víctimas embrujadas, chamanes y otros muchos peligros. No se puede entender Siri sin conocer el recorrido vital de su creador, Colin Cotterill. Ha sido profesor en Estados Unidos, Australia, Japón, Tailandia o Birmania, además de escritor e ilustrador, y sus libros se han traducido a más de doce lenguas. Pero si le preguntamos a Colin, nos dirá que está especialmente orgulloso de su reciente publicación de *El almuerzo del forense* en laosiano.

AMOK



EL ALMUERZO DEL FORENSE
Colin Cotterill

AMOK EDICIONES



PAX

MANUAL DEL ARQUITECTO DESCALZO

MANUAL DEL ARQUITECTO DESCALZO
Johan van Lengen
PAX

Este manual es uno de los grandes clásicos de la permacultura y bioconstrucción. Está dirigido a una amplia variedad de lectores y emprendedores de proyectos de construcción. Contiene consejos de construcción de acuerdo a los climas y condiciones locales, sobre todo a partir de materiales económicos y técnicas tradicionales para obtener viviendas confortables construidas de manera rústica. Como tal clásico de la arquitectura, busca responder a los desafíos actuales de vivienda, pues presenta alternativas de construcción a partir de la combinación de técnicas tradicio-

nales y modernas. Indica muchas formas de hacer una casa, y materiales a utilizar según el clima de la región donde se planea construir. El libro está dirigido a constructores y a quienes hacen viviendas y otras edificaciones para la comunidad, sean maestros de obra, albañiles, carpinteros, fontaneros o algún otro artesano; asimismo, autoridades de pequeños municipios que deciden cómo se van a desarrollar las comunidades y sus alrededores; o bien personas que desean proyectar o construir su propia casa e indicar al contratista o maestro albañil cómo la quieren.

Johan van Lengen, autor de este manual, holandés pero instalado en Brasil desde los años 70, es un experto conocedor de las construcciones tradicionales. Con su socio, Valdo Felinto, también arquitecto, creó en 1981 el Instituto de Tecnología Intuitiva e Bio-Árquitectura (TIBÁ), instalado en una antigua hacienda de veinte hectáreas en Friburgo, estado de Río de Janeiro. Anteriormente, desde 1977, trabajó para la ONU, organismo para el que realizó investigaciones antropológicas con poblaciones indígenas.



Cuida de tu salud en otoño y prepara tu cuerpo para el frío

@Alienta
@Alienta.Editorial
@Alienta_Editorial

alienda
EDITORIAL

JON ABRIL OLAETXEA

Jon Abril Olaetxeak (Bera, 1975) bidaia berezi batera gonbidatzen gaitu, Trapagarandik Maulera edo Baionatik Lodosara, emakumeen ogibide ezkutuetan barrena, Tene Mujika beka irabazitako kronika hunkigarri bezain jakingarri honetan.



ISILDUTAKO ESKUAK
Jon Abril
ELKAR

tzan, bulegoetan, arrantzari lotutako lanetan, kontserbagintzan... Gaiak mamia zuela ohartuta hasi nintzen istorio posibleak biltzen.

Hainbeste leku, ogibide, fabrika eta langile... ez zen erraza izango aukerak egitea, lekuoakop topatzea... Nolakoa izan da prozesua?

Euskal Herri osoko errealitateak jaso nahi nituen, eta oreka bat nahi nuen: emakumeak modu masiboa aritutako lanbideak, hain ohikoak ez zirenak, toki batera lotutakoak... Espartingintza ikur eta aukera bakarra izan da Zuberoan, eta berdin kontserba-lantegia Lodosan edo Ondarroan, edo arrantza Pasaian, adibidez. Bainan nahi nuen papergintzan eta metalgintzan aritutakoak ere agertzea. Lagun eta ezagunen sareen bidez topatu ditut emakume gehienak. Batzuk aunitz kosta zaizkit aurkitzen, lanbideren bat ere kanpoan gelditu da, esperimentzia gogorrak izan zituzten emakumeek ez zutelako kontatu nahi, edo aspaldian utzi ziotelako emakumeek langintza horietan aritzeari.

Zein da bilketa honetan hartu duzun ustekabe handiena? Lazgarriena? Politena?

Aunitz daude! Aukeratzea zail egiten zait, baina umeumetik lanean aritutako emakumeen biziaren eragin didate zirrarak handiena. Hamar urterekin jaunartzeko soinekorako dirua lortzeko kontserba-lantegira joandako Belen Lersundirena, edo zortzi urte bertziker ez zituela unai lanetan aritutako Milagros Landa otsagiarrarena berezi-bereziak egin zaizkit. Emakume hauiek guztiak gizarte oso baten, sistema oso baten kontra



ARGAZKIA: DANIEL SOLARBARRETA

“Emakume hauek guztiak gizarte oso baten, sistema oso baten kontra egindako lana eta borroka ezagutzea izan da politena”

egindako lana eta borroka ezagutzea izan da politena, euren eta emakumeen eskubideen alde erakutsitako indarra. Eta, aldi berean, zeinen aitorpen guti izan duten ikusteak harritu nau.

Ze irakurle imajinatzen duzu eta ze harrera espero zure liburu honentzat?

Gure herriko emakume langileen lana eta borroka ezagutu nahi duen edozein ikusten dut liburua leitzen. Hain zagu ezezaguna, hain arrotza emakume hauak egindako lana, sindikalgiuntzan, mugimendu feministan, lantegi barrenetan, gizartean, familian... Horiek ezagutu nahi ditu enarentzat da liburua.

TERESA LARREA
Kazetaria



Luces y sombras de un dínamo ineludible. Diario de 2016. 23,90 €


EDITORIAL RENACIMIENTO



Nuevos textos de Zweig que parten tanto de lo biográfico como de lo ensayístico. 17,90 €



Los recuerdos y vivencias de una joven actriz de La Barraca durante la República, la guerra civil y el exilio. 24,90 €



La novela de la naturaleza canadiense. Un cuento de ternura universal a un país y a su gente. 18,90 €



En una ciudad de libros descubrirás que la fantasía y la imaginación forman parte de tu vida. 18,90 €

LA CAZA DE BRUJAS NO TERMINARÁ NUNCA

José Dueso no cree en brujas, pero, paradójicamente, les ha dedicado buena parte de su prolífica actividad como autor y editor. Ahora publica *La caza de brujas en Euskal Herria*, que tiene bastante de enciclopedia, porque aborda la totalidad de los procesos por brujería conocidos, y mucho de manual, pues lo hace de forma sucinta y muy amena.

Preséntenos, por favor, su nuevo libro.


Es una historia pormenorizada de los procesos por brujería que conocemos en Euskal Herria. El conjunto proporciona una idea clara del fenómeno de la "brujomía", en la base de la caza de brujas.

Por tanto, trata de las brujas de Anboto, de la raza de Pierre de Lancre en Lapurdi, de Zugarramurdi, de Inesa de Gaxen...

Y de casos menos conocidos, como "el gato que hablaba vascuence" de Orikain, los conjuros que hicieron naufragar a la flota del almirante Oquendo en Bidarte o el Sabbat de la Llanada alavesa en el paso de San Adrián.

Sorprende que en algunos la Inquisición se centre más en perseguir a los cazadores que a las brujas.

La caza de brujas en Euskal Herria, al menos en Hegoalde, no fue comparable a la de Europa. Baste pensar en la carnicería de Lancre en Iparralde. Paradójicamente, fue la Inquisición española la que hizo que se apagaran las hogueras para las brujas a este lado del Pirineo, mien-



ARGAZKIA: TXERTOA


tras al otro se encendían muchas y multitudinarias. Tras Zugarramurdi, la Inquisición llegó a la conclusión de que aquello era una patraña y le restó importancia.

Dicho así, podría concluirse que "no fue tan mala"...

Pues conclusión errónea. La Inquisición española fue un instrumento de represión implacable. Pero lo suyo eran los "herrejes", a ser posible, acaudalados, su principal fuente de ingresos. La brujería era una minucia, además, poco rentable.

De hecho, el perfil convencional de la bruja vasca es el de una mujer pobre y de edad. ¿La documentación lo confirma?

Sí. Y es el perfil en toda Europa. Alrededor del 75% de las víctimas fueron mujeres. Esto está relacionado con que



LA CAZA DE BRUJAS EN EUSKAL HERRIA

José Dueso
TXERTOA

tuvieran conocimientos de tipo mágico sobre plantas y curandería, lo que, a menudo, también las convertía en blanco de las iras de sus vecinos, pues, si podían curar, también podían causar mal, según la lógica popular. Y si esa mujer era anciana, pobre y viuda, sin nadie que la defendiese, pues ya tenemos servido el chivo expiatorio perfecto de los males de la comunidad.

¿Ha hecho un cálculo de víctimas mortales?


De 1329, año de las primeras ejecuciones, a 1610, año de las últimas, 200 personas, por lo bajo, o 323, por lo alto.

¿La caza ha terminado?

La caza de brujas es una metáfora de una constante en la historia: la represión de los disidentes. No terminará nunca.

KARMELE URRUTIA
Periodista

La entrevista completa:
<https://bit.ly/josedueso>



Pedro Urvi, el mejor escritor español de épica fantástica, por fin en librerías. *El hijo del Traidor* es el primer título de la saga *El sendero del guardabosques*, que combina a la perfección: magia, aventura, traición, conspiraciones, algo de romance y muchos secretos.



LÚNETE a los GUARDABOSQUES!





ARGAZKIA ELKAR

Euskara eta euskal kultura, Hezkuntza lege berriaren erdigonera

Ekainaren 16an euskal kulturgintzako hainbat eragile hedabideen aurrean agertu ziren -haien artean elkar Fundazioa-, aldarrikatzen euskal kulturak lehentasuneko tokia behar duela Eusko Legebiltzarrean lantzen ari den Hezkuntza lege berrian, euskal kulturaren egungo egoerak beharrezko egiten duelako haren transmisioa dauden hutsuneak ere kontuan hartzea.

